

IKASTETXEENTZAKO SARE SOZIALETAN JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA

(ZIKLO GUZTIAK)

01

Adingabeen irudiak eta bideoak ez partekatu nahiz eta familiaren eta adingabeen baimena izan. Ez dakigu nork edo nola erabil ditzakeen.

02

Sare sozialetan ikasleekin elkarrizketa pribatuak saihestu. Hobe da kanalak edo taldeak erabiltzea, betiere adingabeek zerbitzu horiek erabiltzeko gomendatutako adina betetzen badute.

03

Adingabeen irudiak edo bideoak familiekin partekatu nahi baditugu: zentroaren webgunean atal pribatu baten. Edo kontu pribatu batekin edo kanalak erabiliz, familiek bakarrik jarraituko digutela eta ez dituztela partekatuko ziurtatuz.

04

Zerbait partekatu aurretik:

1. Ba al dago ezer ni edo nire ikasleak identifikatzeko?
2. Baimen esplizitua dut partekatzeko?
3. Partekatzen ari naizena lagungarria al da nire ikasleen edo beste pertsona batzuen ikaskuntzan?

05

Adingabeak sare sozialetan explotatu gabe ikastetxeari publizitatea egiteko modu alternatiboak bilatzea onuragarria izan daiteke guztiontzat.

